



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GARDENTASUNAREN EGOERA

GASTEIZKO UDALAREN PUBLIZITATE
AKTIBOAREN ETA INFORMAZIO
PUBLIKORAKO SARBIDEAREN ARLOKO
BETEBEHARRAK BETETZEARI BURUZKO
TXOSTENA - 2022KO EKITALDIA



GARDENTASUNAREN ETA EDUKIEN ATALA – 2022KO MAIATZA



AURKIBIDEA

1.- Sarrera	3. or.
1.1 Lege eta arau esparrua	3. or.
1.2 Dokumentu hau dela eta	3. or.
2.- Publizitate aktiboa	4. or.
2.1 Printzipio orokorrak	4. or.
2.2 Gardetasun Atariaren egitura	4. or.
2.3 Betekizunen betetze-mailako buruzko analisia	5. or.
2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa	6. or.
2.3.2 Arlo jurikikoko eta araudien arloko informazioa	6. or.
2.3.3 Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa	6. or.
2.3.4 Langileei buruzko informazioa	7. or.
2.3.5 Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa	7. or.
2.3.6 Beste zenbait kontu	7. or.
2.4 Udalaren erakunde autonomoak eta enpresak	8. or.
3.- Informazio publikoa eskuratzea	9. or.
3.1 Prozedura eta estatistikak	9. or.
4.- Gardentasun-atarira egindako bisitak	11. or.
4.1 Bisitak, noradoaznirezergak atalera	13. or.
5.- Ondorioak	15.or.
I. ERANSKINA - Lege-betekizunak direla eta identifikatutako itemak	17. or.
II. ERANSKINA - Gardentasun-atariko itemen zerrenda	22. or.
ERANSKIN GRAFIKOA – Betebeharren betetze-maila	25. or.



Sarrera

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikulua betetze aldera, **Gasteizko Udalaren publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txostena** aurkezten da, 2022. urteari dagokiona.

Ekitaldi honetan nabarmendu behar da **Gobernantzaren Europako Zigilua (ELoGE)** jaso zuela Gasteizko Udalak 2022ko urtarrilaren 19an; hain zuzen ere, **gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren hamabi printzipiok —garapen iraunkorraren helburuekin lerrokatuak—** osatutako zerrenda batean bikaintasun-kalifikazioa egiaztatzen duten gobernu lokalentzat Europan ematen den bereizgarririk handiena da hori. ELoGEren balioa, halaber, betiko ez izatean datza, behin lortu ondoren bi edo hiru urtean behin berritu behar baita. Etengabeko prestakuntzarako tresna da, beraz: helburua ez da kalifikazioa behin lortzea, baizik eta udal gobernuaren mekanismoak hobetzea, lankidetzeta politiko eta teknikoan oinarrituta.

1.1 Lege- eta arau-esparrua

Oinarrizko bi arautan daude finkatuta dokumentu honetan hizpide ditugun **betebeharrak**, beste legegintza-ingurune batzuetan ageri diren —eta era berean Udalari aplikatzekoak diren— gardentasunaren arloko beste batzuk gorabehera:

- **19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa** (2013ko abenduaren 10eko BOE, 295. zk.).
- **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa** (2016ko apirilaren 14ko EHAA, 70. zk.).

Sailen, erakunde autonomoen eta udal enpresen arteko koordinazio-lana egin zezan, Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzuko Gardentasunaren eta Edukien Atalaren gain utzi zituen zeregin horiek Gasteizko Udalak, efizientziaren eta gastu publikoaren arloko aurrezpenaren inguruko irizpideak oinarritzat hartuta. Horrenbestez, atal horrek egin du txosten hau.

1.2 Txosten honi buruz

Bi legeek publizitate aktiboa nahitaezkoa dela dioten **alderdi** nagusiak aurkezten ditugu txosten honetan, **atalez atal**, eta Udalak betebehar hori zenbateraino betetzen duen adierazten. Gainera, informazio publikora sarbidea izateko eskabideen berri ematen da beste atal batean, eta webgunera egindako bisiten datu estatistikoak.



Publizitate aktiboa

2.1 Printzipio orokorrak

19/2013 Legearen 5. artikuluan eta 2/2016 Legearen 50. artikuluan daude jasota legez horretara behartuta dauden subjektuen publizitate aktiboa gidatu behar duten printzipio orokorrak. Gasteizko Udalak printzipio horiek betetzen ditu, ondoren adierazten dugun moduan bete ere:

- **Irisgarritasuna:** Udalaren webguneak —eta, beraz, bertako eduki guztiek— W3Cren Web Accesibility Initiative-k (WAI) landutako **WCAG 2.0 arauetako AA mailarako definitutako jarraibideak betetzen ditu**, baita nazioarteko hainbat estandar teknologiko ere, eta, horrez gain, informazioaren irisgarritasuna bermatzeko software-laguntza teknikoak ditu.
- **Elebitasuna:** webgunean herritarren eskura jartzen den informazioa **formatu elebidunean** dago gehienbat, erakundeak nahitaez bete beharreko indizetik gora —% 95 ingurukoa da portzentajea html orrien kasuan—.
- **Hizkera inklusiboaren erabilera: hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez ezarritako betekizunak** betetzen dituzte edukiek, baita **Udalaren zeharkako hainbat planetan finkatutako bestelako irizpideak** ere —[Bizikidetza eta Aniztasun Planeko irizpideak](#) aplikatzen dira edukietan—.
- **Eguneratua, argia: eskuratu orduko eguneratzen da informazioa**, eta sailek berek ateratzen dute zuzenean kudeaketa-aplikazioetatik, **zorrotasunez**. Aplikazio horiek **automatikoago** bihurtzeko lan egiten da, eta, aldi berean, informazioa **argiagoa** izan dadin, webguneko edukirik konplexuenak **errazago ulertzerik izan dezaten herritarrek**.
- **Berrerabilitzea eta elkarreragingarritasuna:** Open Data atarian argitaratutako fitxategien kopurua 689koa da (182 datu-multzo) ekitaldi bukaeran.

Txosten honetan, Udalak publizitate aktiboaren arloan dituen betebeharrak nola betetzen diren adierazi ahala, orobat adieraziko dugu printzipio orokor horiek zein puntutan betetzen diren eta zeinetan ez.

2.2 Gardentasun-atariaren egitura

2022an, Gardentasunaren eta Edukien Atala, Udal Administrazioaren eta Eraldaketa Digitalaren Sailarekin batera, Udalaren webgunearen diseinu berria lantzen aritu da, 2023. urtearen hasierarako nabigazioa argiagoa eta errazagoa izan dadin eta, horrenbestez, udal informazioa gardenagoa eta irekiagoa izan dadin.

Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atariaren egungo egiturak zortzi atal nagusitara ematen du sarbidea, zeinek publizitate aktiboaren irizpideei, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta Gobernu Irekiaren alorreko beste ekimen batzuei erantzuten baitiete:

[\[AURKIBIDEA\]](#)



- **Antolakuntza eta plangintza:** alde batetik, antolakuntza politikoa eta administratiboa, eta bestetik, plangintzaren eta kontu-ematearen inguruko informazioa.
- **Ekonomia eta aurrekontuak:** hitzarmenei, dirulaguntzei, aurrekontuei, kostuei, tasei eta zergei buruzko informazioa.
- **Kontratazioak eta ondarea:** kontratuen gaineko estatistikak eta inbentarioari buruzko informazioa.
- **Gardentasuna, gaika:** udal kudeaketaren hainbat arlori, izapideei eta zerbitzuei buruzko informazio eskuratzeko sarbidea.
- **Udal araudia:** udal araudi guztia jasotzen duen berariazko orria.
- **Open Data-Datu irekiak:** datu irekien atarirako zuzeneko sarbidea.
- **Azterlanak eta estatistikak:** Ikerketa eta Estatistika Bulegoaren webgunerako sarbide zuzena, non hiriaren errealitatea eta bilakaera hobeto ezagutzeko dokumentazio erabilgarria eskaintzen baita.
- **Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea:** eskubide hori baliatzeko moduari buruzko informazioa, eta jarraipenaren estatistikak.
- **Herritarren partaidetza:** partaidetzaren atalerako sarbidea.

Atariaren testuinguru-menuan, baita Gobernu irekiaren fitxan dagoen estekan ere, beste espazio batzuetara jotzeko zuzeneko sarbideak mantendu dira 2022an, hala nola “Nora doaz nire zergak” plataformara —udal aurrekontuak azaltzen dira bertan, formatu grafikoan—, 2019-2023 Planeko kontu-emateko plataformara eta beste proiektu estrategiko batzuetara —Gasteiz Green Deal, 2030 Agenda edo beste—. Gainera, erakunde autonomoen eta udal enpresen gardentasun-edukietarako eta beste eduki interesgarri batzuetarako sarbideak mantendu dira.

Aurreko urteetan bezala, mantendu egin da “Azken berriak” atala, bertan ematen baita atariaren eguneratze garrantzitsuenei buruzko informazioa. 2022an, egindako eguneratzei buruzko 68 ohar argitaratu ziren albiste-dukiontzari horretan.

2.3 Betekizunen betetze-mailari buruzko analisia

Publizitate aktiboaren arloko betekizunak bete diren jakiteko, **52 item identifikatu dira guztira** (ikus I. eranskina). Sei ataletan bildu dira, aztertzeko:

- 2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa
- 2.3.2 Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa
- 2.3.3 Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa
- 2.3.4 Langileei buruzko informazioa
- 2.3.5 Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa
- 2.3.6 Beste zenbait alderdi



2.3.1 Erakundeari, antolakuntzari eta plangintzari buruzko informazioa

Kapitulu honetako betebeharreri erantzuteko, [Antolakuntza](#) eta [plangintza](#) atala du Gasteizko Udalaren gardentasun-atariak. Bi atal horietan, eskatutako informazio-item nagusiak jasotzen dira, bai eta alkatearen eta zinegotzien dedikazio-erregimenari buruzko informazioa ere, banakako artxibo baten bidez. Txosten hau bukatzeko orduan, datuak eguneratuta daude, nahiz eta ohartarazpen hau egin beharrean gauden: **Zuzendaritza-langileen curriculum vitaeak mantentzen** dira, IGI erakunde autonomokoaren eta udal enpresen kasuan izan ezik, baina **oraindik ez da ematen lanpostu horietan jarduteko eskatzen den profilari buruzko informazioa**; horrek esan nahi du ez dela betetzen 2/2006 Legean ezarritako betebeharren parte bat baino.

Plangintzari buruzko informazioari dagokionez, **2019-2023 Gobernu Plana argitaratzen da, eta kontu-emateko plataforma**. Agintaldiko ardatz estrategikoen **urteko plan eta programei** buruzko informazioari dagokionez, nagusiei buruzko informazio eguneratua eskaintzen da, hala nola **Vitoria-Gasteiz Green Deal** deritzona, garapen **iraunkorreko helburuak eta 2030 Agenda** eta Hiri Agenda, zehazki.

Informazioa elebiduna da, gaztelania hutsez dauden zenbait fitxategi erantsi salbu, eta **genero-berdintasunaren markoa errespetatzen da**. Informazio eguneratua da, egiazkoa, ez oso konplexua, eta irisgarritasun unibertsalaren estandarrak betetzen ditu —bai html edukiak, bai pdf artxiboek—. I. eranskinean jasota dago atal honetan identifikatutako itemen zerrenda.

2.3.2 Arlo juridikoko eta araudien arloko informazioa

Bi artikulua hauetan aztertzen diren informazio-itemak Udalaren webguneko **hainbat lekutan ageri dira**, eta gardentasun-atariak hainbat estekek eramatean dute horietara. Besteak beste, honako hauetan: udal araudien orrian, herritarren partaidetzaren ingurukoetan, aurrekontuei buruzkoetan... Identifikatutako itemei erreparatuz gero (ikus eranskina), hauek dira **argitaratzen ez ditugunak** (aurrekoa bi ekitaldietako berberak):

- **Udal organoek hartutako erabakiak, zuzenbidea interpretatzea dakartenak** nahiz ondorio juridikoak dituztenak.
- Araudiak lantzeko dosierak osatzen dituzten oroitidazki eta txostenak; bereziki, **eragin normatiboaren analisiaren oroitidazkia**, zeina uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuan arautzen baita.
- **Urteko araugintza-plana**, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren arautze-ekimenak jasotzen dituena.

2.3.3 Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa

I. eranskinean **zerrendatzen diren itemak** —informazio ekonomikoa, kontratazioei buruzkoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa— **modu proaktiboan eskaintzen dira, bai gardentasun-atariaren bidez, bai datu irekien atariaren bidez** —kontratu-zerrenden edo aurrekontuen kasuan—. **Prozedura-kontuei zor zaizkienak izan ezik** —ezin dira aurrekontu-adierazleak kalkulatu aurrekontua erabat itxi arte—, **gainerako guztiak argitaratuta daude**.



Atal honetako itemei gagozkielarik, hauetan **ez dira betetzen**:

- **Udalaren ondasun-inbentarioa**, 2015eko datuak ageri baitira.
- **Hornitzaileen zerrenda**, 2022koa egiteke baitago.

Aurrekontu-informazioari buruzko atal honi dagokionez, nabarmendu behar da OGP taldean parte hartzen ari garela, zeinaren helburua baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetarako aurrekontu grafikoaren plataforma bat bateratzea. Erabiltzaileekiko analisi sakon bat hartu da abiapuntutzat, beharrak identifikatzeko.

2.3.4 Langileei buruzko informazioa

Udal langileei dagokienez, Udalaren webguneko administrazio-antolakuntzaren atalean jarritako **esteken bitartez betetzen dira** publizitate aktiboaren arloko betebeharrak, eta beste zenbait espaziotako bitartez, hala nola www.vitoria-gasteiz.org/hautezprozesuak edo udalaren webguneko azalean, enplegua estekatik, [enplegua eta prestakuntza](#) web orrira. Egiteke dauden **hobekuntzen zerrendan, 2022an indarrean jarraitzen zuen 2019an egindako proposamenak, alegia, lanpostuen zerrenda ulertzeko aukera emango duen koadro sinoptiko bat argitaratzea**. Terminoen eta laburtzapenen glosario bat argitaratzen da, baina informazioa argiago eman liteke.

2.3.5 Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa

Kasu honetan, legean finkatutako publizitate aktiboaren arloko betebeharrari erantzungo liekeen informazioa ez dago berariaz leku bakar batean bilduta, baizik eta Udalaren webgunean sakabanatuago; dena den, hasieran azaldu den atariaren egituraren berrantolaketak 'Gardentasuna, gaika' epigrafean biltzea ekarri du. Funtsean betetzen dira legean finkatutako betebeharrak horiek. Kasu guztietan, informazioa bi hizkuntza ofizialetan dago —kostu-azterketak osatzen dituzten artxibo erantsiak izan ezik—, irisgarritasun-betekizunak betetzen dira, eta genero-ikuspegia aintzat hartzen duen hizkeraren inguruko udal politika errespetatzen.

Aurreko urteetan bezala, **Udalaren kalitate-politikari eta aipatutako zerbitzuen katalogoaren proiektuari buruzko informazio eguneraturik ez izatea jotzen da gabezia nagusizat**.

Horren ordez, administrazio publikoaren betebeharra da beren eskumeneko prozeduren zerrenda web-atarian argitaratzea eta eguneratuta edukitzea, informazio-ondorioetarako (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikulua). Horren kariatara, udal sail guztiok **prozeduren katalogo** eguneratu bat izatea ahalbidetuko digun proiektu batean parte hartu dugu. Xede horrekin, aplikazio bat garatzen ari da, helburu hirukoitzarekin: Estatuko Administrazio Publikoaren Administrazio Informazioko Sistema (SIA) izeneko aplikazio informatikoa, Egoitza Elektronikoko izapideen katalogoa eta jendaurreko arreta kudeatzeko barne-aplikazioa (EVA) elikatzea.

2.3.6 Beste zenbait kontu

"Beste zenbait kontu" izeneko epigrafean (ikus I. eranskina), **gardentasun-atari bat du** Gasteizko Udalak, eta herritarrentzat **interes orokorrekoak diren informazioak** argitaratzen ditu. Gainera, **herritarren arretarako eta partaidetzarako bideen berri ematen da**, eta webgunera sartzeko diren pertsonen **edukietatik bertatik edo herritarren postontziaren bidez** —herritarrekiko elkarrizketa-tresna nagusia— **esku har dezakete**.

Bestalde, 2/2016 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren ildotik, Udalak webgune bat mantentzen du —<http://elkarteak.info>— **Gasteizko elkarte-mugimenduko entitate pribatuek espazio bat izan dezaten gardentasunaren arloko beren argitalpenetarako**, horretara behartuta baitaude laguntza eta dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitateek.



2.4 Udalaren erakunde autonomoak eta enpresak

Udalaren **erakunde autonomoek** —[Ingurugiro Gaietarako Ikastegia](#), [Luis Aranburu Musika Eskola](#) eta [Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioa](#)— **atal propioa dute Gardentasun Atarian**, eta, bertara bideratzen duen esteka jarrita dago Udalaren webgunean bakoitzak duen orrian. Atal horretan ematen den informazioak, funtsean, webgune orokorreko eskema berari jarraitzen dio, baina hainbat informazio-item orokorrean integratuta daude, hala nola aurrekontuei edo goi-karguen ordainsariei buruzko informazioa.

Erakunde autonomoen kasuan, **oro har informazioa eguneratuta ageri da, eta formatu elebidunetan** edo euskarazko bertsioarekin. Aurrekontuei buruzko informazioa eguneratuta dago. Aurrekontuarekin hertsiki lotuta ez dauden hainbat konturi dagokienez, erakunde bakoitzaren jardueraren arabera daude eguneratuta datuak —esaterako, IGIren hornitzaileen zerrendak edo jasotako dirulaguntzak berrikusi beharko lirateke, baita kontserbatorioko edo musika-eskolako ordainsariak ere—.

Udal enpresen kasuan (TUVISA, AMVISA eta 21 Zabalgunea), eguneratze-maila erakunde autonomoen kasuan adierazitakoaren antzekoa da; txosten hau egiteko unean, TUVISArena eguneratzen ari da.



Informazio publikoa eskuratzea

3.1 Prozedura eta estatistikak

19/2013 Legearen III. kapituluan arautzen da **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, gardentasunaren beste dimentsioa, “gardentasun pasiboa”** esan ohi zaiona, hartara “gardentasun aktibotik” bereizteko, hau da, txosten honetan aipatzen diren publizitate aktiboaren arloko betebeharrak arautzen duten horretatik.

19/2013 Legean informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzearen inguruan ezarritako erregulazioak —2/2016 Legearen III. kapituluan [Informazio publikoa eskuratzeko arloko printzipioak eta erreklamazio-organoak] indartua— Gasteizko Udalean eskubide hori gauzatzeko **administrazio-prozedura bat abian jartzea** ekarri zuen berekin, zeina aplikazio baten bitartez modu elektronikoan baliatu baitaiteke, eta horrek aukera ematen digu legearen arabera bi hilean behin argitaratu beharrekoak diren estatistikak ateratzeko.

2022an 27 **eskaera jaso** dira, eta 62 **erantzun eman**. Kopuru horren zergatia da aurreko ekitaldian eskaera kopuru handia erantzun gabe geratu zela eta aurten 3ra murriztu dela; izan ere, sailekin barne-lana egin da arlo horretako dosierren izapidetzea arintzeko.

Bestalde, ohartu gara jasotako eskabideetako asko berez ez direla eskabideak, eta artxibatze modukoak direla, beste prozedura batzuekin lotuta baitaude, hala nola dosierak ikusteko prozedurari, zeinak beste izapidetze bat baitakar; aurten 46 izan dira horrelakoak.

Argitaratutako estatistikei dagokienez, bi hilean behin jasotzen dira gardentasun-atarian 2/2016 Legean zehaztutako datuak. Datu irekien atarian ere argitaratzen dira.

2022. urtea

- Jasotako eskabideak: 27
- Eskabideak, aurkezteko moduaren arabera: aurrez aurre (12) / Posta arruntez (0) / Online (15)
- Eskatzaileen sexua: emakumeak 10 / gizonak 10 / entitateak 7
- Erabilitako hizkuntza: gaztelania (27) / euskara (0)



Erantzunen zer-nolakoak	
Emandako erantzunak	62
Epe barruan emandako erantzunak	13
Erantzuteko baliatutako modua	Posta arrunta: 0 / Posta elektronikoa 61
Onetsitako eskabideak	12
Partez onetsitako eskabideak	1
Ezetsitako eskabideak eta arrazoaia	3
Artxibatuak	46
Gaikako laburpena	Mugikortasuna eta garraioa (2), Espazio publikoa (3), Ingurumena eta iraunkortasuna (6), Informazioa eta herritarrentzako arreta (3), Gizarte Zerbitzuak (1), Ogasuna (1), Ekonomia sustapena (2), Hirigintza - Etxebizitza (6), Herritarren segurtasuna (3), Prestakuntza eta enplegua (5).
Erantzuteke (urtea bukatzean)	3



Gardentasun-atarira egindako bisitak

2023an, estatistikak neurtzeko Google Analytics tresnak Universal Analytics-etik GA4-rako trantsizioa osatuko du. Azken urteotan biak batera erabili izan dira. 2023ko uztailearen 1etik aurrera, ordea, Universal Analytics-ek datuak prozesatzeari utziko dio. **Edukien Atalak aurrea hartu dio trantsizio horri, eta denbora darama GA4 neurtzeko modu berrira egokitzen**, zeina ekitaldietan oinarritzen baita.

Horregatik, memoria honetan aurkezten ditugun datuak erreferentziako tresna berri horren bidez bildutakoak dira, laster erabiliko ez den tresnarekin lortutako aurreko urteetako metriekin konparazio zehatzak egitea saihestuz eta etorkizuneko neurketa eta konparazioetarako **oinarriak ezarriz**.

Aldi berean, **Udalaren webguneari buruzko informazio estatistikoa** —urteko oroitidazkietarako biltzen dena— **herritarren eskura jartzeko asmoari eusten diogu**, eta horretarako berriazko espazio bat sortzekoa, www.vitoria-eiz.org/gardentasuna helbidean. **Eduki hori prestatzeke dago oraindik**.

Bestetik, aurreko urteetan adierazi den bezala, **egiturazko zailtasunak** daude **udal gardentasunaren atarian estekatuta agertzen diren eduki jakin batzuen bisitak** banakatzeko, udal webguneko edukiak direlako eta ez atari horretarako berriaz prestatutako html-ak. Datu nagusietako batzuk eskaintzen dira hemen.

Orri nagusiak	Bisita kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Gardentasun-ataria (hasiera)	14.494	3.409
Udalaren webgunea	17.243.224	767.514
<i>Elkarren arteko erlazioa</i>	<i>Guztiaren % 0,08</i>	<i>Guztiaren % 0,44</i>

Gaikako orriak	Bisita kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Antolakuntza eta plangintza	4.522	1.078
Ekonomia eta aurrekontuak	1.456	381



Gaikako orriak	Bisita kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Kontratazioak eta ondarea	1.250	349
Gardentasuna, gaika	2.283	765
Udal araudia	9.552	2.643

Eduki-orriak	Bisita kopurua (ikusitako orrialdeak)	Erabiltzaileak guztira
Goi-karguak eta langile izendatuak	3.359	1,071
Goi-karguen ordainsariak	2.575	913
Udal langileak	9.025	2.470
Jardueren eta ondasunen erregistroa	306	108
Gai-zerrenda eta akten kontsultak (organo espezifiko bakoitza kontsultatzeko sarrera ematen duen orria)	1.547	327
Osoko bilkuraren zuzeneko emanaldiak streamingen	5.613	1.148
Kontratuen, dirulaguntzen eta abarren estatistikak eta zerrendak*	808	167
Legealdiko plan estrategikoa	1.444	434
Kontu-ematea, Agenda Gasteiztarra (atariko orri guztiak)	1.629	564
Open data (orri nagusia)	7.757	3.382

Open Data atariari dagokionez, guztira 2.795 banaketa deskargatu dira urtean zehar, eta hauek dira nabarmengarrienak:



Banaketak	Deskargak	Erabiltzaileak guztira
Gasteizko iturriak	105	84
Menpeko toki erakundearen mugen mapa eta biztanleria	94	79
Hiri-lurzoruaren erabilerak, 2020	86	75
Bizikleta-bideak SHPn	83	74
Sare hidrografikoa	80	59

Bisitak, 'noradoaznirezergak' webgunera

Modu espezifikoa, noradoaznirezergak.vitoria-gasteiz.org webgunean izandako bisitei buruzko datu nagusiak eskaintzen ditugu —aurrekontuen plataforma grafikoa, CIVIO fundazioarekin egindako kontratuari esker abian jarria, non Udalaren aurrekontuei buruzko datu irekiak ustiatzen diren—.

Plataforma GA4ra eguneratzekotan da; beraz, Universal Analytics-ek erregistratutakoak dira jarraian emandako datuak.

Datuek 2021ean nabaritu genuen goranzko joera berresten dute: % 20 handitu da ikusitako orrialdeen kopurua, eta % 70 erabiltzaileena. Beraz, egiaztatzen da 2019ko datuak berreskuratu egin direla ikusitako orrialdeei dagokienez, orduan lortutakoak berdindu baitira, eta, aldi berean, hobetu egin direla ataria erabili duten erabiltzaileen kopuruari dagokionez.

	2018	2019	2020	2021	2022
Ikusitako orrien kopurua	2.402	5.646 (+% 135)	3.341 (-% 40,8)	4.440 (+% 32,8)	5.333(+ % 20,1)
Erabiltzaile-kopurua, guztira	69	1.096 (+% 1.488)	1.005 (-% 8,3)	1.764 (+% 75,5)	2.994(+ % 69,7)
Erabiltzaile berrien kopurua	68	1.100 (+% 1.511)	994 (-% 9,3)	1.800 (+% 76,6)	2.983 (+ % 70)



Gehien bisitatu ziren hamar orrien artean ez da aldaketa handirik nabarmendu gehien eskatzen diren edukiei eta horien ordenari dagokienez. Glosarioak jarraitzen du lehen lekuan eduki guztien artean, eta horrez gain hasiera-orria, aurrekontuei buruzko orriak, ordainketa eta inbertsioei buruzko informazioa eta “Zure ekarpena” atala, non simulazio pertsonalizatua egiten baita, zergak nola banatzen diren aurrekontuetan.

Eduki-orriak	Bisita-kopurua
Zer esan nahi du?	2.411
Hasierako orria	526
Udal aurrekontuak, guztira	298
Aurrekontuaren ikuspegi orokorra	278
Gasteizko Udalaren aurrekontuak	210
Ordainketa eta inbertsioak	190
Zure ekarpena	162
Hasierako orria	133
Zor publikoa	88
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena- Aurrekontua	74



Ondorioak

ELoGE zigilua lortzeko **autoebaluazio-prozesu bat** egin zen 2021. urtearen amaieran, eta, horri esker, aipatutako tresnaren ardatz diren 12 printzipioetako bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak identifikatu ahal izan ziren, tresna horren helburua jardunbide egokien aitortzea sustatzea eta hobetzeko arloak identifikatzea baita. Hain zuzen ere, gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren hamabi printzipiok —garapen iraunkorraren helburuekin lerrotatuak— osatutako zerrenda batean bikaintasun-kalifikazioa egiaztatzen duten gobernu lokalentzat Europan ematen den bereizgarririk handiena da zigilua.

Hobetzeko arlo horiek **2019-2023 Legealdiko Planarekin** lerrotatu ziren. Plan horrek 6. ardatzeko —"Gobernantza, Kudeaketa hurbila, arduratsua eta irekia"— bi konpromiso izan ditu oinarri: Gardentasun Ataria hobetzea eta Datu Irekien Ataria zabaltzea.

Konpromiso horiek birformulatu behar izan dira, ez herritarrei ematen zaien informazioaren bolumena handitzeko, baizik eta informazio hori **eskuratzeko modua eta azalpenak hobetzeko** (komunikazio argiaren ekimenak, ikus-entzunezko elementuak, udal ekintzaren didaktika eta abar) eta gobernu irekiaren eredia osatzen duten elementu guztiak erlazionatzeko (gardentasuna, informazio-eskaerak, kontuak ematea, partaidetza...).

Oro har, gobernu irekiko ekimenei dagokienez, honako **helburu** hauek mantenduko dira legegintzaldia amaitu arte (2023ko maiatza):

- Argitaratutako informazioaren kalitatea handitzea, eta ez kantitatea.
- Ikus-entzunezko eduki edo eduki grafiko berriak gehitzea, gehienbat didaktikoak.
- Webguneko edukiak albisteen eta sare sozialen bidez argitaratzea, haien sustapena eta interesa errazteko.
- Lehentasunezko zatitza jotzea edukiak komunikazio argiko parametroetara egokitzeko lanak. Horien oinarriak Estrella Montoliorekin ezarri ziren, azaroan udal langileekin egindako lan-saio batean.

Gardentasun aktiboaren alderdi kuantitatiboari dagokionez, azken urteotan bezala jarraitu da lan egiten; ez da hobekuntza kualitatiborik izan, hainbat item falta zaizkigulako, eta argitalpen-prozesuak automatizatzea zail gertatzen delako. Egoera hori bi ikuspuntu ezberdinetatik interpreta daiteke, nahitaez antagonikoak ez direnak, osagarriak baizik: alde batetik, uste dugu nolabaiteko heldutasun-maila lortu dela informazioa argitaratzeko eta zabaltzeko zenbait dinamikatan; bestetik, badirudi geldialdian gaudela, beste urte batzuetan detektatutako gabeziak errepikatzen ari baitira. Kuantitatiboki betetze-maila altua dela esan dezakegu, % 90era iristen ez bagara ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Txosten hori kontuan hartuta, ondorio hau atera da: **maila kuantitatiboan, Udalak publizitate aktiboaren arloan egiten duen lana maila altuetan mantentzen da; maila kualitatiboan, berriz, informazioa eta datuak erakusten diren formatuak handitzeko eta hobetzeko beharra azpimarratzen da.**

Hori da jakinarazi beharreko guztia, Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 15ean.

Gardentasunaren eta Edukien Atala

Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzua



I. ERANSKINA

LEGE-BETEKIZUNAK DIRELA ETA IDENTIFIKATUTAKO ITEMAK

Aurreko ekitaldietan bezala, Udalaren gardentasun-politika aktiboaren xede diren hainbat item identifikatu dira, gardentasun-politiken lege-esparruan publizitate aktiboaren nahitaezko informazioztat jotzen dena oinarritzat hartuta.

Identifikatutako itemen zerrenda ematen da ondoren:

Erakundeari, antolakuntzari eta planifikazioari buruzko informazioa

19/2013 Legearen 6. artikulua eta 2/2016 Legearen 52. artikulua arabera

Galdatutako informazioa:

1. Toki-erakundearen organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: organoen titularrak (osaera) eta eginkizunak.
2. Aplikagarri zaizkion arauak.
3. Organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.
4. Erakundearen eta haren gobernu-taldeetan ardura politiko gorenaren duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.
5. Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
6. Antolakuntza-egitura eguneratua: organo desberdinetako arduradunak biltzen dituen organigrama, berariaz aipatuz zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.
7. Toki-ordezkarien ondasun eta jardueren buruzko urteroko aitorpenak.
8. Behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
9. Gobernu-plana, agintaldiko plana edo jarduera-plana. Aldian-aldian, horien betetze-maila.
10. Urteko eta urte anitzeko plan eta programak (xede zehatzak, eta horiek gauzatzeko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta epea). Xede horien gauzate-mailaren aldizkako ebaluazio eta argitalpena.
11. Udaleko alderdi politikoen buruzko informazioa.
12. Aholku-organoak eta gizarte-partaidetzakoak, haien jardura eta erabakiak barne.
13. Edonolako erakunde instrumentalak; arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.
14. Toki-erakundeek argitara emango dituzte, beren web-orri instituzionalan eta informazio orokorreko gainerako medio propioetan, beren posta-helbidea, beren helbide elektronikoa eta erakundeak herritarrentzat dituen irispide orokorreko telefono-zenbakiak, eta adieraziko dituzte beren kargu hautetsien eta zuzendaritza-karguen interakzio-moduak.



15. Halaber, ezagutzera emango da zein kanaletatik eskaintzen diren herritarren arretarako zerbitzuak eta zein kanaletatik gauzatu daitekeen herritarren parte-hartzea.

Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa

19/2013 Legearen 7. artikulua eta 2/2016 Legearen 53. artikulua araber

Galdatutako informazioa:

1. Publikoak izango dira udal organoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
2. Toki-erakundeen ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, beranduenera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira. Irizpenak eskatzea nahitaezkoa denean, aholku-organoei irizpenak eskatzen zaizkienean argitaratuko dira, eta horrek ez du eragingo, nahitaez, entzunaldi publikoa ematea.
3. Arau-testuak egiteko dossierretako memoriak eta txostenak; bereziki eragin normatiboaren analisiari buruzko memoria, zeina uztailearen 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak arautzen baitu.
4. Indarreko legeria sektorialari jarraituz, izapidetze-aldian jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.
5. Aholku-organoen txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.
6. Herritarren partaidetzako prozesuaren memoria eta ondorioak, halakorik baldin badago.
7. Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikulua —Arau-plangintza— araber

8. Urteko Araugintza Plana argitaratzen da, zeinak hurrengo urtean onesteko igorriko diren erregelamendu-ekimenak jasotzen baititu.

Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa

19/2013 Legearen 8. artikulua eta 2/2016 Legearen 55. eta 57. artikulua araber

Galdatutako informazioa:

1. Kontratu guztiak, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-batekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzaitileen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.
2. Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.
3. Orobat argitaratuko dira datu estatistikoak sektore publikoko kontratuena arloko legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuari dagokionez hartzen duten ehunekoari buruz.
4. Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ez-betetzeengatik.



5. Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.
6. Sinatutako kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.
7. Emandako dirulaguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.
8. Aurrekontuak, aurrekontu-partida nagusiak deskribatuz eta exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratu eta ulergarria emanez. Argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, partida nagusiak deskribatuz eta horien exekuzio-maila ezagutzea eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakitea ahalbidetzen duen informazio zehatza emanez.
9. Aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.
10. Argitaratu beharreko urteko kontuak, eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.
11. Honen aplikazio-eremuko entitateetako goi-kargu eta arduradun nagusiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak. Halaber, kargua uztean jasotako kalte-ordainak ere argitaratuko dira, jaso badituzte.
12. Bateragarritasuna baimentzeko edo aitortzeko ebazpenak, langile publikoei eragiten dietenak, eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguek edo autonomia-erkidegoko edo tokiko araudien arabera horien pareko direnek kargua utzitakoan jarduera pribatuan jarduteko baimentzen dituzten ebazpenak.
13. Tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitortpenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.
14. Beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera.
15. Hornitzaileen ordaintzaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.
16. Ondare-ondasun higiezinaren zerrenda —bere jabetzakoak izan nahiz haien gaineko eskubide errealean bat eduki—, eta, kasua bada, horiek laga dizkion entitatea.



Langileei buruzko informazioa

2/2016 Legearen 56. artikulua araberaz

Galdatutako informazioa:

1. Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak —deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne—.
2. Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaro eta prestakuntza-programak.
3. Sindikatu-ordezkaritzako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berariaz aipatu beharko delarik zer ordu-kreditu duten.
4. Lanpostuen zerrendek taula sinoptiko bat jaso beharko dute, non, kategoriaren arabera ordainsari individualizatua jartzeaz gainera, antolamendu-tresna horren elementu garrantzitsuenak laburtuko diren.

Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa

2/2016 Legearen 54. artikulua araberaz

Galdatutako informazioa:

1. Toki-erakundeek modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko dute zer sartzen den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko dute zer ondasun eta prestazio eskaintzen dituen toki-erakundeak eta horien kostua zenbatekoa den, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.
2. Era berean, publiko egingo dituzte zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, halakorik badute, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatzekeo prozesuak.
3. Eskaintzen den zerbitzu bakoitzaren ordutegia eta horiengatik ordaindu beharreko prezio publikoak edo udal tasak zehaztu beharko dira.
4. Gainera, informazio agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen gainean:
 - Mantentzea eta obrak; segurtasun publikoa eta babes zibila; hondakinen bilketa eta tratamendua; uraren kudeaketa; kale-garbiketa; jarduera ekonomikoak eta lizentziak; hirigintza eta ingurumena; kultura eta kirola; gizarte-zerbitzuak eta gizon eta emakumeen berdintasuna.



Beste zenbait alderdi

2/2016 Legearen 58. eta 61. artikuluen arabera

Eskatutako informazioa bi artikuluen arabera:

1. Herritarrentzako interesekoa den informazioa ere argitaratuko da, ahaztu gabe betiere dagokion arautegi espezifikoak ezarritako informazio-betebeharrak.
2. Ezagutzera emango dira herritarren arretarako eta partaidetzarako zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek gardentasunaren atari bat sortu ahal izango dute beren egoitza elektronikoetan edo erakunde-webgunetan, herritarrek eta erakundeek titulu honetan ezarritako gardentasun-betebeharren ondorioz publikoa den informazio oro eta toki-erakundeak eman nahi duen informazio guztia eskuratzeko errazteko (nahitaezkoa da 20.000 biztanletik gorako toki-erakundeetan).
4. Espazio bat prestatu beharko da herritarrek proposamenak eta iradokizunak egin ditzaten, bai eskatutako informazioari buruz, bai beren eskuera jarritako informazioari eta erabilitako formatu, programa edo lengoia informatikoei buruz. Espazio horrek, era berean, aukera eman ahal izango du datuen irekitasunarekin eta berrerabilerarekin lotutako aplikazio informatikoen garapenean parte hartzeko.
5. Toki-erakundearen beraren erregelamendu bidez, gainera, informazioa herritarren artean zabaltzea eta herritarren partaidetza bultzatuko duten kanal anitzeko sistemak ezarri ahal izango dira.



II. ERANSKINA

GARDENTASUN-ATARIKO ITEMEN ZERRENDA

I. eranskinean zerrendatutako itemez gain, badira Udalaren gardentasun-atarian jasotzen diren beste informazio-unitate batzuk ere. Elementu horiek guztiak (I. eranskinekoak eta gehituak) jasotzen dira hurrengo taulan, 2020ko ekitaldiaren itxierako eguneratze-egoerarekin.

ITEMA	EGUNERATUA
Udalaren webguneko agenda	Bai
Alkatearen erakunde-agenda	Bai
Tokiko 21 Agenda, eta adierazleen bilakaera	Ez
Talde politikoei ematen zaizkien diru-kopuruak	Ez
Sindikatuiei egindako ekarpen ekonomikoak eta liberazio-orduak	Ez
Ingurumen-atlasa eta ingurumen-informazioko sistema	Bai
Udal kontuen bame eta kanpo ikuskapenak	Bai
Udal bandoak	Bai
Kontratazio-mahaiaren egutegia (gai-zerrendak eta aktak)	Bai
Gobernu-organoen bilkuren egutegia (osoko bilkurak, tokiko gobernu-batzarra...)	Bai
Partaidetza organoen egutegia (elkarguneak, Gizarte Kontseilua...)	Bai
Udalaren kode etikoa, edo jokabide onarena	Bai
Kontratazio-mahaiaren osaera	Bai
Gobernu-organoen osaera	Bai
Partaidetza-organoen osaera	Bai
Kontratazio-mahaiaren akta eta gai-zerrenden kontsulta	Bai
Gobernu-organoen akta eta gai-zerrenden kontsulta	Bai
Partaidetza-organoen akta eta gai-zerrenden kontsulta	Bai
Dirulaguntza-deialdiak	Bai
Zuzendaritza- eta administrazio-kontseiluen deialdiak	Bai
Deialdiak, deklarazioak, prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak	Bai
Kargu hautetsiekin harremanetan jartzeko datuak (helbide elektronikoa, sare sozialak...)	Bai
Talde politikoen datuak (webgunea, sare sozialak, harremanetarako datuak)	Bai
Herritarren postontziari buruzko datu estatistikoak	Bai
Kontratuei buruzko datu estatistikoak, prozeduraren arabera	Bai
Gasteizko biztanleriari buruzko datu estatistikoak	Bai
Kargu hautetsien datu pertsonalak (izena, curriculum)	Bai
Udalaren batez besteko ordainketa-epetari buruzko datuak	Bai
Udal dekretuak	Bai
Kaleetako trafiko-dentsitatea	Bai
Udal bulegoak (helbideak, telefonoak, ordutegiak)	Bai
Udalbatzaren Idazkaritzaren eginbideak (kalteordainak, bateraezintasunak)	Ez
Hauteskunde sindikalak eta langileen ordezkariak	Bai



ITEMA	EGUNERATUA
Udalbatzaren osoko bilkurak bideoan eskaintzea eta gordetzea	Bai
Udalaren webgunearen erabilerari buruzko estatistikak	Ez
Aurrekontuaren gauzatze-egoera eta plan eta programekiko erlazioa	Bai
Zerbitzuen kostuen azterketak	Ez
Azpiegitura-obra handien bilakaera	Bai
Administrazio-antolakuntzaren gida-fitxa, webgunean	Bai
Antolakuntza politikoaren gida-fitxa, webgunean	Bai
Webguneko RSS harpidetzen gida-fitxa (egutegiak, albisteak...)	Bai
Alkatearen erakunde-agendatik sortutako gastuak	Bai
Kontratuen eta horien aldaketen historikoa (kontsulta online)	Bai
Trafiko-kameren irudiak	Bai
Trafiko-gorabeherak (obrek eragindako aldaketak)	Bai
Adierazle ekonomikoak eta aurrekontuen ingurukoak (zorra, biztanleko gastuak eta abar)	Bai
Tuvisaren lineei buruzko informazioa, denbora errealean	Bai
Udal informazioa, webgunean eta sare sozialetan (berriak, txioak...)	Bai
Wifi-sare publikoari buruzko informazioa	Bai
Espazio Publikoak kontrolatutako obrei buruzko informazioa	Bai
Aholkularitza Juridikoaren txostenak.	Ez
Kontu-hartzailtza Nagusiaren txostenak (eragozpen-oharrak barne)	Bai
Udalbatzaren Idazkaritzaren txostenak	Bai
Organo Ekonomiko Administratiboaren txostenak.	Ez
Aurrekontu-egonkortasunaren inguruko txostenak	Bai
Gardentasun-betebeharren betetze-mailari buruzko txostena	Bai
Udal inbentarioa (eraikinak, ibilgailuak, balio artistikoa duten ondasunak...)	Ez
Formalizatutako kontratu txikien zerrenda (zenbatekoak eta adjudikaziodunak)	Bai
Obra publikoen lizitazioetan lehiatu diren enpresen zerrenda	Bai
Obra publikoen adjudikaziodun nagusien zerrenda	Bai
Zuzendaritza-lanpostuen eta konfiantzako langileen zerrenda (izena/kargua)	Bai
Kontratu guztien zerrenda (xedea, zenbatekoa, prozedura...)	Bai
Hornitzaile eta kontratista nagusien zerrenda	Ez
Lokalizazioak, kml, ibilbideak..., GeoVitoria Gasteizen	Bai
www.vitoria-gasteiz.org webgunearen mapa	Bai
Udalaren enplegu-eskaintza	Bai
Ordenantza fiskalak	Bai
Udal ordenantzak	Bai
Udal organigrama orokorra	Bai
Udal organigrama, sailez sail	Bai
Udal talde politikoaren orriak (webguneak, sare sozialak)	Bai
Udaltzaingoaren eta suhiltzaileen jardueraren parteak	Bai
Kontratatzailearen profila (artean adjudikatu gabeko lizitazioak)	Bai



ITEMA	EGUNERATUA
Informazio publikora sarbidea izateko eskabideak, 9/2013 Legearen ildotik	Bai
Agintaldiko plana edota Udalaren plan estrategikoa	Bai
Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa	Bai
Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (txostenak, aldaketak, mapak...)	Bai
Lurzoruaren udal plana, arauak, erabilera eta destinoa barne	Bai
Urteko eta hainbat urteko plan eta programak (plan estrategikoarekin zerikusia dutenak)	Bai
Aurrekontuen ataria, Nora doaz nire zergak (CIVIO)	Bai
Urteko aurrekontuak: zifrak, dokumentuak, estatistikak	Bai
Udalak sinatutako hirigintza-hitzarmenak argitaratzea	Bai
Sindikoa gomendioak eta txostenak	Bai
Kargu hautetsien ondasunen, interesen eta jardueren erregistroa	Bai
Udal araudiak	Bai
Sinatutako hitzarmenen zerrenda	Bai
Lanpostuen Zerrenda	Bai
Udalak erakundeetan dituen ordezkarien zerrenda	Bai
2019-2033 gobernu-planaren kontu-ematea	Bai
Udalari eragiten dioten ebazpen judizialak	Bai
Kargu hautetsien eta konfiantzako karguen ordainsariak	Bai
Egoitza elektronikoa: tramitazioa online	Bai
Udalaren ingurumen-egoera (airearen kalitatea, zarataren mapa...)	Ez
Emandako dirulaguntzak (kapitala eta arruntak)	Ez
Jasotako dirulaguntzak (kapitala eta arruntak)	Ez
Ordainsarien taula, lanpostuz lanpostu	Bai

GUZTIRA: 96 item; horietatik 13 eguneratu gabe daude. Eguneratu gabeko horien artean, gehienak aldizka eguneratzen diren itemak dira, eta gerta daiteke, txosten hau ixteko unean, prozedurari edo zirkunstantziei dagozkien arrazoiengatik, oraindik eguneratuta ez egotea. Hala ere, aipatzekoak dira eguneratuta egon beharko luketen arren ez daudenak:

- Talde politikoek eta sindikatuek izendatuta dituzten diru-kopuruak.
- Ondasun-inbentarioa.
- Hornitzaile eta kontratista nagusien zerrendak.
- Dirulaguntzen datuak, ekitaldia ixtean.



Berriaz aipatzen ditugu urdinez ageri direnak, gaur egun ez baitira Udalaren webgunean argitaratzen bi item horiek:

- Aholkularitza Juridikoaren txostenak.
- Organo Ekonomiko Administrazioaren txostenak.



ERANSKIN GRAFIKOA: LEGE-BETEBEHARREN BETETZE-MAILA

	Guztira	Bai		Ez
			Egiteke dauden hobekuntzak	
Erakundeari eta antolakuntzari buruzko informazioa	15	14	0	1
Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa	8	5	0	3
Informazio ekonomikoa, aurrekontuen ingurukoa eta estatistikoa	16	13	1	3
Langileei buruzko informazioa	4	4	1	0
Politika publikoei buruzko informazioa	4	4	2	0
Beste zenbait alderdi	5	5	0	0
GUZTIRA	52	45	5	7



I. eranskinean identifikatutako betebeharren % 86 betetzen da, aurreko ekitaldiko ehuneko bera. Izan ere, aldaketa esanguratsu bakarrak aurreko urteetako zenbait hobekuntza izan dira. Eguneratu eta argitaratu gabe daudenak lehenengo item berak dira.

■ Betetzen dira ■ Ez dira betetzen